



2020SPLE0013

UDALEKO PLENOA. BILERA-AKTA ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 13
EGUNA: 2020/12/17
HASIERA ORDUA: 19:02
AMAIERA ORDUA: 19:39
TOKIA: Udaleko Batzar Aretoa

Nº: 13
DÍA: 17/12/2020
HORA DE INCIO: 19:02
HORA DE FINALIZACIÓN: 19:39
LUGAR: Salón de Plenos del Ayuntamiento

BERTARATUAK:

Gilen Garcia Boyra, **alkatea**

EH Bildu udal taldea

Itziar Irizar (bozeramailea)
Aritz Larrañaga
Antxon Etxeberria
Nerea Arrizabalaga
Antxoka Elorza

Debarren Ahotsa udal taldea

Pedro Bengoetxea (bozeramailea)
Isidor Lamariano
Ane Egidazu
Enrique Salgado

EAJ-PNV udal taldea

Iñigo Cambronero (bozeramailea)
Eneritz Gomez
Miren Esnal Laskibar

Idazkaria: Jorge González Endemaño

ASISTENTES:

Gilen Garcia Boyra, **alcalde**

Grupo municipal EH Bildu

Itziar Irizar (portavoz)
Aritz Larrañaga
Antxon Etxeberria
Nerea Arrizabalaga
Antxoka Elorza

Grupo Municipal Debarren Ahotsa

Pedro Bengoetxea (portavoz)
Isidor Lamariano
Ane Egidazu
Enrique Salgado

Grupo Municipal EAJ-PNV

Iñigo Cambronero (portavoz)
Eneritz Gomez
Miren Esnal Laskibar

Idazkaria: Jorge González Endemaño

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:

Gilen: Aztergaiekin hasi aurretik proposatzen dugu SAREk aurkeztutako mozioa gaien zerrendan sartzea.

TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS:

Gilen: Antes de comenzar con los temas de estudio proponemos incluir en el orden del día la moción presentada por SARE.



DEBAKO UDALA

2020SPLE0013

Osoko bilkurak aho batez onartzen du SAREk aurkeztutako mozioa gaien zerrendan sartzea.

El pleno aprueba por unanimidad incluir en el orden del día la moción presentada por SARE.

1. COVID-19 kutsatzeko edo hedatzeko prebentzio neurri gisa honakoa onartzea, hala badagokio: Osoko bilkura hau atek itxita egitea

1. Aprobar, si procede, celebrar esta sesión de pleno a puerta cerrada, como medida de prevención del contagio o propagación del COVID-19

Gilen: Baimena eskatu digute prentsatik argazki batzuk ateratzeko, nahiz eta atek itxita egon.

Gilen: Desde un medio de comunicación nos han solicitado autorización para sacar fotografías, aunque estemos a puerta cerrada.

Osoko bilkurak aho batez onartzen du Osoko bilkura hau atek itxita egitea eta kazetariari argazkiak ateratzeko baimena ematea.

El pleno aprueba por unanimidad celebrar esta sesión de pleno a puerta cerrada y autorizar la presencia de un periodista para hacer fotografías.

2. Aurreko bilkurari (2020/11/05) dagokion akta zirriborroa onartzea, hala badagokio.

2. Aprobar, si procede el borrador del acta de la sesión anterior (05/11/2020)

Osoko bilkurak aho batez onartzen du aurreko bilkurari (2020/11/05) dagokion akta zirriborroa.

El pleno aprueba por unanimidad el borrador del acta de la sesión anterior (05/11/2020).

3. Alkatearen dekretuen kontrola

3. Control de los Decretos del Alcalde

Alkatearen Dekretuen gaineko informazioa ematen da.

Se da cuenta de los Decretos del Alcalde.

4. Debako Udaleko 2. zenbakidun kreditu aldaketa onartzea, hala badagokio

4. Aprobar, si procede, la modificación de créditos nº 2 del Ayuntamiento de Deba

Itziar: Kreditu aldaketa hau ogasuneko batzordean landu genuen eta lau partida desberdin ditu.

Itziar: Esta modificación de crédito fue tratada en la comisión de hacienda y consta de cuatro partidas distintas:

1. Casa Campoko farolak aldatzeko 7.000€ko partida bat.

1. Una partida de 7.000€ para cambiar las farolas de Casa Campo.



DEBAKO UDALA

2020SPLE0013

2. Miramarko semaforoa jartzeko 20.000€ko partida bat.
3. Udaltzainen kotxea erosteko 20.300€ko partida bat.
4. Errementarikoa urbanizatzea aurreikusita zegoen baino gehiago izango denez, beste 11.000€ko partida bat.

2. Una partida de 20.000€ para colocar el semáforo del Miramar.
3. Una partida de 20.300€ para la compra del coche de la Policía Municipal.
4. Como la urbanización de Errementarikoa será superior a la prevista, otra partida de 11.000 €.

Guztira 58.300 € kreditu aldaketa bat izango litzake.

En total es una modificación de créditos de 58.300 €.

Pedro: Gu ados gaude.

Pedro: Estamos de acuerdo.

Iñigo: Gu ere ados gaude.

Iñigo: Nosotros también estamos de acuerdo.

Osoko bilkurak aho batez onartzen du 2. zenbakidun kreditu aldaketa.

El pleno aprueba por unanimidad la modificación de créditos nº 2.

5 Debako Udalaren eta Itziarko Auzo-udalaren arteko eskumen-araubidea arautzen duen administrazio-hitzarmena onartzea, hala badagokio

5. Aprobar, si procede, el Convenio administrativo regulador del régimen de competencias entre el Ayuntamiento de Deba e Itziarko Auzo Udala.

Gilen: Pasaden astean Itziarko Auzo Udalak bere osoko bilkuran aho batez onartu zuen; orain gure txanda da.

Gilen: La semana pasada Itziarko Auzo Udala lo aprobó por unanimidad en su pleno; ahora es nuestro turno.

Itziarko Mahaiari landutako hitzarmena da, eta hemen ditugu araudiak: "Debako Udalaren eta Itziarko Auzo Udalaren arteko eskumen-araubidea arautzen duen administrazio-hitzarmena" da.

Se trata de un convenio que se ha trabajado en la Mesa de Itziar y cuya regulación es: "Convenio administrativo que regula el reglamento de competencias entre el Ayuntamiento de Deba y la Entidad Local Menor".

Onartzen badugu bihar sinatuko dugun Itziarko Auzo-alkatearekin batera.

Si lo aprobamos, mañana lo firmaremos junto a la alcaldesa pedánea de Itziar.

Pedro: Guk onartzen dugu hitzarmena eta sinatuko dugu, baina zerbait irakurri nahi dugu:

Pedro: Nosotros estamos de acuerdo con el convenio y lo vamos a firmar, pero queremos leer un escrito:



DEBAKO UDALA

2020SPLE0013

Gaur sinatuko dugun hitzarmenak Itziarko Toki Erakunde Txikiaren berezko eskumenak zein eskuordetuak ezartzen ditu. Horiek bere funtzionamendua arautzen dute, eta, 2015eko urtarrilaren 29ko Foru Dekretuan jasota daude, orduan eratu baitzen.

El convenio que hoy firmamos establece las competencias propias y delegadas de la Entidad Local Menor de Itziar que regula su funcionamiento y que se encuentran recogidas en el Decreto Foral de 29 de enero del 2015, fecha en la que fue constituida.

2017ko martxoaren 30eko osoko bilkuran, funtzionamendurako arau-proposamen bat onartu zen. Orduan, EAJk eta Debarren Ahotsak gobernatzen zuten, eta bi taldeen aldeko botoekin onartu zen. Berriz, EH Bilduk eta Itziarko Auzo Udalak aurka bozkatu zuten.

En el Pleno de 30 de marzo del 2017, fecha en la que gobernaban PNV y Debarren Ahotsa, fue aprobada por los votos a favor de ambos grupos, una propuesta normativa de funcionamiento, con el voto en contra de EH Bildu e Itziarko Auzo Udala.

Urte hauetan, funtzionamendua gure legegintzaldian onartutako proposamenaren arabera arautu da, baina sortutako desadostasunek ez dute erraztu bi erakundeen arteko harremana.

Durante estos años, el funcionamiento se ha regulado en base a la propuesta aprobada por nuestra legislatura, si bien las discrepancias surgidas no facilitaron la relación entre las dos entidades.

Negoiazio sei urte ondoren, azken hilabete hauetan hainbat bilera egin dira, eta talde politiko guztiok eta toki-erakunde txikiaren ordezkariak parte hartu dugu.

Seis años después de negociaciones, a lo largo de estos últimos meses se han celebrado diversas reuniones en las que hemos participado todos los grupos políticos y representantes de la Entidad Local Menor.

Debarren Ahotsak adierazi nahi du, hitzarmen hau sinatzea aurrerapausoa dela, eta horren froga da gure programan hori agertzen dela.

Desde Debarren Ahotsa queremos trasladar que la firma de este convenio supone un avance, y una muestra de ello es que figura en nuestro programa.

Gure buruari galdetzen diogu zer justifikazio duen martxoan ez onartzeak eta dokumentuaren aurka zeudenek orain bai onartzea.

Nos preguntamos qué justificación tiene que en marzo no se aprobara y que los que se oponían al documento, ahora sí lo aprueban.

Azkenik, adierazi nahi dugu hitzarmen hau sinatzea osotasun baten parte dela, eta, beraz, horrek ez duela esan nahi lurraldetasunari buruz ditugun ideiei uko egiten diegunik. Aldaketa hori Aldundiari eskatu genion, dagokion dokumentua

Por último, manifestar que la firma de este convenio es parte de un todo. Y por lo tanto, esto no significa renunciar a nuestras ideas respecto a la territorialidad, cuya modificación fue solicitada a la Diputación, presentando el documento correspondiente,



DEBAKO UDALA

2020SPLE0013

aurkeztuz, eta ebazteke dago.

y que se encuentra pendiente de resolución.

Azaldutako guztia oinarri hartuta, uste dugu gai batzuk konpontzeke daudela, eta, beraz, ez gara ekitaldi instituzionalera etorriko, uste baitugu ez dela oraindik hori egiteko unea.

En base a todo lo expuesto, pensamos que quedan temas por resolver, y por tanto no asistiremos al acto institucional, al considerar que no es el momento de realizarlo.

Alde guztiek egindako ahalegina aitortu eta eskertu nahi dugu; izan ere, hori da bi erakundeek Deba eta Itziarren etorkizunaren alde elkarrekin lan egiteko modu bakarra.

Queremos reconocer y agradecer el esfuerzo realizado por todas las partes; siendo esta la única manera en que ambas entidades trabajen conjuntamente por el futuro de Deba e Itziar.

Pedro: Hau irakurri nahi nuen gure proposamenak azaltzeko eta baita ere jakinarazteko zergatik ez garen bihar etorriko, baina hitzarmena onartzen dugun.

Pedro: Quería leer esto para exponer nuestras propuestas y explicar por qué no vamos a ir mañana, pero aceptamos el acuerdo.

Iñigo: Guk hitzarmena sinatuko dugu. Gure ustez, ahalegin handiz lortu da, hiru indar politikoen lankidetzeta eta akordioarekin.

Iñigo: Nosotros sí vamos a firmar el convenio. Creemos que se ha logrado con un gran esfuerzo, la colaboración y el acuerdo de las tres fuerzas políticas.

Uste dugu ospatzeko motiboa dela eta Auzo-Udala garatzeko zutabea izango dela. Uste dugu garrantzitsua dela adostasun maila hori nabarmentzea, eta guk babestu egingo dugu, Itziarrekiko harremana egituratuko duelako. Une egokia dela uste dugu eta sinadura-ekitaldian egongo gara bihar.

Creemos que es motivo de celebración y va a constituir los pilares para el desarrollo de la Entidad Local Menor. Creemos que es importante destacar ese nivel de consenso y lo vamos a apoyar porque va a constituir la organización de la relación con Itziar. Creemos que es el momento y vamos a estar en esa firma mañana en el acto.

Itziar: Nik Iñigok esandakoarekin bat egiten dut; normalizaziorako bide bat.

Itziar: Yo comparto lo dicho por Iñigo: un camino para la normalización.

Pedrok esandakoari erantzunez, egia da guretzat hitzarmen honen garrantzia dela adostasun batera iritsi garela; gutxieneko bat izan arren, lehen pausoa ematera iritsi gara.

En respuesta a lo expuesto por Pedro, es cierto que para nosotros la importancia de este convenio es que hemos llegado a un acuerdo. Aunque sean unos mínimos, hemos dado el primer paso.



DEBAKO UDALA

2020SPLE0013

2018an Martxoko plenoan EH Bilduk kontra bozkatu zuen, orain beste puntu batzuek ere sartu dira. Lanketa beste modu batera egin da, beste konfiantza bat eratu da bileretan. Ikusi dugu Debako udal gobernua Auzo-Udalekoarekin egin dituen bileretan asmoa izan dela puntu amankomunak biltzea denon artean, eta hasiera puntu hori lortu da. Hau da hasiera.

Talde bezala eskertuta gaude egon den borondate horrekin, bai Udalbatza osatzen dugun hiru alderdiekin eta baita Auzo-udalarekin ere. Nire ustez oraingoan garrantzi gehiago eman zaio elkar ulertzeari; eta horrela jarraitu dezagun.

Pedro: Guk ondo baloratzen dugu; denon lana izan da eta adostasunera iritsi gara. Diferentzia da guretzako pauso bat baino ez dela, eta ez dugu ikusten hainbeste zarata atera behar denik. Diputazioak asko dauka esateko, eta guk ez dugu oztopoa izan nahi. Bide hori jarraituko dugu, hitzarmen hau adostu egin dugu eta gure proposamenak izan dira zerbait lortzeko.

Gilen: Gaia pixka bat hurbiltze aldera. Aipatzea egindako proposamena, mahaiaren lanketa zela. Egin behar genituen elkarrizketak Auzo-Udalarekin alkatetza, baita ere batzordean, eta alderdi politiko guztiekin.

Nire ustez gure burua zoriondu behar dugu, denon esfortzua izan delako. Azkenean gai honek tirabira handiak sortu ditu iraganean, tirabirak sortzen ditu, ez da gai eroso. Edozein posiziotatik; nahiz alderdi politikoak, nahiz administrazioen ikuspuntutik baita ere. Nik gehien

En el pleno de marzo del 2018 EH Bildu votó en contra, pero ahora se han incluido otros puntos. Se ha trabajado de otra manera, y se ha creado una confianza en las reuniones. Hemos visto que en las reuniones mantenidas entre el gobierno municipal de Deba y el Auzo-Udala se ha pretendido aunar los puntos comunes, y ese punto de partida se ha conseguido. Este es el comienzo.

Como grupo estamos agradecidos por esa voluntad que ha habido, tanto por parte de los tres partidos que forman la corporación como con la Entidad Local Menor. Creo que en esta ocasión hemos priorizado el entendimiento; y que así se siga.

Pedro: Nosotros lo valoramos positivamente; lo hemos trabajado entre todos y hemos llegado a un acuerdo. La diferencia es que para nosotros es un paso y no vemos que haya que hacer tanto ruido. La Diputación tiene mucho que decir y nosotros no queremos ser un obstáculo. Nuestra línea seguirá por ese camino; este acuerdo ha sido consensuado y nuestras propuestas han sido para conseguir algo.

Gilen: Recapitulando un poco, comentar que la propuesta era establecer una mesa de trabajo, con unas conversaciones con Auzo Udala, alcaldía, la comisión y todas las fuerzas políticas.

En mi opinión nos tenemos que felicitar porque ha sido un esfuerzo de todos. En el pasado este tema generó muchas tensiones, y las sigue generando; no es un tema cómodo. Desde cualquier posición, tanto de partido político como de la administración. Lo que más destacaría es



DEBAKO UDALA

2020SPLE0013

nabarmenduko nukeena da talde bakoitzaren eta erakunde bakoitzaren gogoetak eta jarrera aldaketak ekarri duela konfiantza eraiki ahal izatea.

que la reflexión y el cambio de actitud de cada institución y cada grupo ha propiciado construir una confianza.

Eskerrak ematea partaide guztioi lan amankomuna izan delako. Udalerri ikuspegitik, eta udalerririk dituen beharretik, administrazioaren kudeaketari dagokionez, diruaren kudeaketari dagokionez, eztabaida hor dago, eta erabat konpartitzen dut.

Daros las gracias a todos los participantes porque ha sido un trabajo colectivo. Desde el punto de vista municipal, y teniendo en cuenta las necesidades del municipio en la gestión administrativa y económica, el debate está ahí y lo comparto plenamente.

Biharko ekitaldiaren asmoa da Udalerri osoari erakustea pauso bat eman dugula, oinarri bat finkatu dugula elkarrikeria jarraitzeko. Ez da behin-betiko irtenbidea, inondik inora, eta zalantzarik gabe mahai gainean daude eztabaida batzuk, bat lurraldetasuna, kasu. Halere, saiatu gara eztabaidan dauden gaiak alde batera uzten edo multzokatzen, akordioan sartzen joateko. Lurraldetasuna eta Aldundiak eman beharreko erantzuna iritsiko da baina horrek ez du eraginik hitzarmenean. Hau da bihar herriari erakutsi nahi dioguna, gure lanaren adierazlea da. Besterik ez.

La intención del acto de mañana es mostrar a todo el Municipio que hemos dado un paso, y que se ha establecido una base para continuar con el diálogo. No es una solución definitiva, y sin duda hay debates sobre la mesa, como el de la territorialidad. Sin embargo, hemos procurado dejar de lado o agrupar los temas en discusión para ir incorporándolos al acuerdo. La territorialidad y la respuesta que debe dar la Diputación no afectan al convenio. Esto es lo que queremos mostrar mañana a la ciudadanía, como muestra de nuestro trabajo. Nada más.

Osoko bilkurak aho batez onartzen du Debako Udalaren eta Itziarko Auzo-udalaren arteko eskumen-araubidea arautzen duen administrazio-hitzarmena.

El pleno aprueba por unanimidad el Convenio administrativo regulador del régimen de competencias entre el Ayuntamiento de Deba e Itziarko Auzo Udala.

6. 2019an Lankidetzarako onartutako proiektu baten aldaketa onartzea hala badagokio

Gilen: Azken osoko bilkuran ekarri genituen bi proiektuen aldaketa onartzeko; horietako batek eskatzen digu epea pixka bat luzatzea. Izan dituzten arazoak areagotu egin dira eta martxoa arte

6. Aprobar, si procede, la modificación de un proyecto de cooperación aprobado en 2019

Gilen: En el último pleno trajimos la modificación de dos proyectos para su aprobación; uno de los cuales nos pide una prórroga. Se les han aumentado los problemas y nos piden una prórroga hasta



DEBAKO UDALA

2020SPLE0013

luzatzea eskatzen digu.

marzo.

Batzordeak oniritzia eman zion.

La comisión le dio el visto bueno.

Pedro: Guk batzordean esan genuen ados gaudela.

Pedro: Nosotros comentamos en la comisión que estamos de acuerdo.

Gilen: Ados hortaz?

Gilen: ¿Entonces de acuerdo?

Iñigo: Bai.

Iñigo: Sí.

Osoko bilkurak aho batez onartzen du 2019an Lankidetzarako onartutako proiektu baten aldaketa.

El pleno aprueba por unanimidad la modificación de un proyecto de cooperación aprobado en 2019.

7. 2020 urteko Enplegua eta Tokiko Garapena Sustatzeko Proiektuak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz laguntzen dituenak gauzatzeko Elgoibarko, Soraluze, Mendaroko Debako eta Mutrikuko Udalen artean burutzen den gestioa, Debabarreneko lurralde eremuaren esku uzteko hitzarmena sinatzea, hala badagokio

7.- Suscribir, si procede, el Convenio de Encomienda de Gestión entre los Ayuntamientos de Elgoibar, Soraluze, Mendaro, Deba y Mutriku para la ejecución de los proyectos de impulso del empleo y desarrollo local subvencionados por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, al ámbito territorial de Deba Behea/Bajo Deba del 2020

Aritz: Lehenik esatea ez dagoela irizpenik, batzordea asteazkenean egin zen eta hau ostegunean iritsi zen gizarte zerbitzuetara.

Aritz: En primer lugar, comentaros que no hay dictamen; la comisión se celebró el miércoles y esto llegó el jueves a Servicios sociales.

Aurreko Osoko bilkuran 2019koak onartu genituen; aurtengoak denboran onartzen ditugu eta izango litzateke aurreko osoko bilkuran bezala: aurten egin dugun enplegu planaren hitzarmena sinatzea Elgoibarko Udalak kudeatzen duelako.

En la sesión plenaria anterior se aprobaron los del 2019; las de este año las aprobamos a tiempo. Sería como en la sesión anterior, firmar el convenio que recoge el plan de empleo porque lo gestiona el Ayuntamiento de Elgoibar.

Iñigo: Ados gaude.

Iñigo: Estamos de acuerdo.

Osoko bilkurak aho batez onartzen du 2020 urteko Enplegua eta Tokiko

El pleno aprueba por unanimidad suscribir el Convenio de Encomienda de Gestión



DEBAKO UDALA

2020SPLE0013

Garapena Sustatzeko Proiektuak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz laguntzen dituenak gauatzeko Elgoibarko, Soralezeko, Mendaroko Debako eta Mutrikuko Udalen artean burutzen den gestioa, Debabarreneko lurralde eremuaren esku uzteko hitzarmena sinatzea.

entre los Ayuntamientos de Elgoibar, Soraluze, Mendaro, Deba y Mutriku para la ejecución de los proyectos de impulso del empleo y desarrollo local subvencionados por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, al ámbito territorial de Deba Behea/Bajo Deba del 2020.

8. Eusko Jaurlaritzari udalentsako ezohiko funtsa berezi gehigarria eskatzeko mozio onartzea, hala badagokio

8. Aprobar, si procede, la moción para la solicitud al Gobierno Vasco de un fondo extraordinario adicional para los ayuntamientos

Itziar: (Mozioa irakurtzen du). I.Eranskina

Itziar: (Lee la moción). Anexo I

Pedro: Guk onartu egingo dugu.

Pedro: Nosotros vamos a apoyarla.

Iñigo: Guk ez dugu mozioa babestuko. Uste dugu mozio politikoa dela eta funtsa Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa eraso egitea dela.

Iñigo: Nosotros no vamos a apoyar la moción. Creemos que es una moción política y el fondo es atacar la gestión del Gobierno Vasco.

Datuak jartzearen, ez daukagu lehentasunik administrazioen arteko finantzaketa-sisteman, elkarrekotasun partekatuan oinarritzen baita;. Krisi honetan gastuen hazkundea, batez ere, osasunera, hezkuntzara, ekoizpen-sistemara eta gizarte zerbitzuetara joan da. Gastu horiek Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak ordaintzen dituzte.

Por poner datos, no tenemos prioridad en el sistema de financiación entre administraciones está basada en la reciprocidad compartida. En esta crisis, el incremento de gastos sobre todo ha ido a sanidad, educación, al sistema productivo y a servicios sociales. Estos gastos los soporta el Gobierno Vasco y Diputación.

Aurten eta datorren urtean uste dut zorpetzeko gaitasuna dugula udaletan, baita aurrekontuak garatzeko ere. Uste dut kontua ez dela Europako funtsak nork kudeatzen dituen, nola kudeatzen diren eta zertan erabiltzen diren baizik. Guk zentzu horretan ez dugu mozioa babestuko.

Este año y el próximo, creo que tenemos capacidad de endeudamiento en los ayuntamientos, así como para desarrollar los presupuestos. Creo que no se trata tanto de quién gestiona los fondos europeos sino cómo se gestionan y en qué se emplean. Nosotros en ese sentido, no vamos a apoyar la moción.

Bozkatu ondoren, honako emaitza agertzen da:

Sometida a votación, se obtiene el siguiente resultado:



DEBAKO UDALA

2020SPLE0013

Aldeko bozkak: 10 (EH Bildu eta Debarren Ahotsa).

Kontrako bozkak: 3 (EAJ-PNV).

Votos a favor: 10 (EH Bildu y Debarren Ahotsa).

Votos en contra: 3 (EAJ-PNV).

Osoko bilkurak gehiengoz onartzen du Eusko Jaurlaritzari udalentsako ezohiko funtsa berezi gehigarria eskatzeko mozioa.

El pleno aprueba por mayoría la moción para la solicitud al Gobierno Vasco de un fondo extraordinario adicional para los ayuntamientos.

9. SAREk aurkeztutako mozioa

Aritz: (Mozioa irakurtzen du). II.Eranskina.

Pedro: Talde bezala mozioaren puntu batzuekin ados gaude, baina ez guztiekin. Osotasunean onartu behar denez, ez dugu onartuko. Puntuka eginez gero, lehenengoarekin ados gaude eta beste biek ez.

Iñigo: Bat gatoz bere osotasunean mozioaren edukiarekin, eta uste dugu garaia dela horrelako egoera bidegabea konpontzeko.

Ondorioz babestu egingo dugu, baino hirugarren puntuarekiko gure desadostasuna erakutsiz. Lehenengo puntuak pisu handiagoa duela uste dugu eta aldeko botoa emango dugu.

Aritz: Nik nahi dizut esan, Pedro, bigarren puntuan udalak esaten duela beste adierazpen batzuekin bat egiten duenean, horrekin ere bat egiten duela. Ados nago zuen posturarekin.

Pedro: Guk gai horretan, betiko postura dugu: udaletxea ikusten dugu gauza batzuetarako eta alderdia beste batzuetarako. Ados gaude presoen egoera nolakoa den, baina ikusten dugu

9.- Moción presentada por SARE

Aritz: (Lee la moción). Anexo II.

Pedro: Nosotros como grupo estamos de acuerdo en algunos puntos, pero no en todos. Como hay que aceptarlo en su totalidad, no lo aceptaremos. Si lo hacemos por puntos, estamos de acuerdo con el primero, con el resto no.

Iñigo: Compartimos en su integridad el contenido de la moción y creemos que es hora de resolver una situación injusta como esta.

En consecuencia, lo vamos a apoyar, pero mostrando discrepancia con el punto tercero. Creemos que tiene más peso el uno y vamos a votar a favor.

Aritz: Quisiera comentarte, Pedro, que en el punto segundo el ayuntamiento dice que cuando en otras declaraciones se adhiere, también lo hace con esta. Estoy de acuerdo con vuestra postura.

Pedro: Nosotros en ese tema tomamos la postura de siempre: vemos al ayuntamiento para unas cosas y el partido para otras. Más que ver cómo es la situación de los presos, vemos en el Ayuntamiento que



DEBAKO UDALA

2020SPLE0013

udaletxean batzuk ados egongo direla eta beste batzuek ez. Horregatik nahiko nuke egin puntuka, baina ezin da.

Aurreko puntua ere nire ustez bozkatu eta kendu egin beharko genuke mozioetatik, bestela beti berdina gertatzen zaigu mozio guztiekin.

Gilen: Niri ere zalantza sortzen dit. Gaia ez da talde politiko batek ekarria, ibilbide luzekoa da; guztiok dakigu herri honetako errealitatea.

Pozgarria da denok bat egitea lehendabiziko puntuarekin, 2. Ulertzen dut beste mobilizazio batzuekin bezala...

Kontua da Sare herritarren eskaria den heinean bere osotasunean mantendu behar dugula. Halere esatea nire ustez beti dela hobeto ahal den heinean behintzat adostasuna daukagun puntuetan onartzea. Ulertuko duzue bozkatzea

Pedro: Sarek badaki gure postura.

Bozkatu ondoren, honako emaitza agertzen da:

Aldeko bozkak: 9 (EH Bildu eta EAJ-PNV).
Aurkako bozkak: 4 (Debarren Ahotsa).

Osoko bilkurak gehiengoz onartzen du SAREk aurkeztutako mozioa.

10. Eskari eta galderak

Iñigo: Nik galdera bat daukat pisu

unos estarán de acuerdo y otros no. Por eso me gustaría hacerlo por puntos, pero no es posible.

El punto anterior también creo que deberíamos votarlo y eliminarlo de las mociones, de lo contrario siempre nos pasa lo mismo en todas las mociones.

Gilen: A mí también me surgen dudas. La moción no la trae un grupo político, es un tema de largo recorrido; todos conocemos la realidad de este país.

Es satisfactorio que todos estemos de acuerdo en el primer punto; entiendo que con el punto segundo, como con otras movilizaciones...

La cuestión es que tenemos que mantenerlo en su integridad como demanda ciudadana. Sin embargo, y en la medida de lo posible, pienso que siempre es mejor aceptarlo en los puntos en los que al menos estamos de acuerdo. Entenderán que lo votemos.

Pedro: SARE conoce nuestra postura.

Sometida a votación, se obtiene el siguiente resultado:

Votos a favor: 9 (EH Bildu y EAJ-PNV).
Votos en contra: 4 (Debarren Ahotsa).

El pleno aprueba por mayoría la moción presentada por SARE.

10.- Ruegos y preguntas

Iñigo: Tengo una pregunta sobre los pisos



DEBAKO UDALA

2020SPLE0013

turistikoei buruz.

Jabeak hurbildu zaizkigu eta jakinarazi digute aktibo zeuden baimenak ukatzen ari direla. Duela hilabete batzuetatik ezin dituztela etxebizitza turistikoak ustiatu, geldirik dituzte. Ez dakite zein puntutan dagoen gai hau, ea normalean egiten den zerbait ote den. Gobernu Batzorde batean esan zen baimena berriak ukatuko zirela, behin betiko ordenantza atera arte, baina ez genekien baimena aktiboak ukatzen ari zirenik.

Gilen: Egoeraren azalpena da lege bat atera zela eta lege horrek lekua ematen zuen pisu turistikoak ezartzeko Euskal Erkidegoan. Herri gehienetan hirigintza antolamenduko plan orokorrean egoera ezberdinak ematen ziren eta hori da gure kasua. Gure arau subsidiarioen hirigintza plan orokorrean ez daude aurreikusita. Estetizista, abokatu... eta horrelako lan zehatz batzuez aparte, ez du bestelako erabilera ekonomikorik aurreikusten etxe bizitzetan; lege berriak bai ordea. Guri iritsi zitzaigunean gaia (bi urte zeraman), erantzuna ematera behartuta ikusi genuen geure burua.

Gai deserrosoa zenez, landu genuen zegokion teknikariekin eta arkitektoarekin. Arkitektoak txostena egin zuen eta beste bat gehiago egin zuen gure herriko antolamendu orokorrean oinarritua. Horren arabera bere interpretazioa argia zen eta adierazten zuen ez zela posible erabilera ekonomiko hori ematea etxe bizitzetan. Hortaz ezeztatu egin ziren; automatikoki erantzuna ezezkoa baitzen. Horiek berdinak dira, ez dago gehiagorik.

turísticos.

Se nos han acercado los propietarios informándonos que están denegando las licencias que estaban activas, y que desde hace unos meses no pueden explotar los pisos turísticos; los tienen parados. No saben en qué punto está esto, si es una práctica que se hace habitualmente. En una Comisión de Gobierno se comentó que para las nuevas licencias, hasta sacar una ordenanza definitiva de los pisos turísticos, se les iba a denegar, pero lo que no sabíamos es que las licencias activas se estaban denegando.

Gilen: La explicación de la situación es que se promulgó una ley que daba cabida a la implantación de pisos turísticos en toda la Comunidad Autónoma. En la mayoría de los pueblos la ordenación urbanística presentaba diferentes situaciones en el plan general, y este es nuestro caso, en nuestras Normas Subsidiarias del Plan Urbanístico general no está contemplado. Únicamente contempla casos concretos como esteticién, abogado y similares; no se contemplan otros usos económicos en las viviendas, pero sí lo hace la nueva ley. Cuando nos llegó este tema (que ya llevaba dos años) nos vimos obligados a dar una respuesta.

Al tratarse de un tema incómodo, lo tratamos con el arquitecto y el técnico correspondiente. El arquitecto ya había realizado un informe, pero hizo otro basado en la organización general de nuestro pueblo. En base a ello, su interpretación era clara e indicaba que no era posible dar ese uso económico a la vivienda. Por lo tanto, se denegaron, y automáticamente la respuesta fue no. Son los mismos, no hay más.



DEBAKO UDALA

2020SPLE0013

Prozedura da, legeak onartzen ditu: interesdunak eskatzen du eta Eusko Jaurlaritzak udalari informatzen dio. Udalak informatu behar du ea bere araudiaren arabera kontraesanik eman daitekeen edo ez. Hortik abiatuta erantzun genion Eusko Jaurlaritzari, eta irakurketa zen ez zegoela erabilera horretarako lekurik.

Talde politiko guztiekin bilduko zirela adierazi zuten eta bildu ginen. Lehenengoz alkatetzarekin bildu ziren. Egoera berdina da, ez da ezer aldatu. Kontua da esaten dutela denbora honetan kalte hori jasan dutela. Interesdun horietako batzuk talde batean bildu dira eta gurekin harremanetan jarri dira eta luzatu dituzte beren kexak beste instantzia batzuetara. Hortik heldu zen udaletxera pasa den astean Lehiaren Euskal Agintaritzaren txosten bat azaltzen duena konpetentziaren kontrako egoerarik sortzen dela, eta adierazten du gure hirigintza plana zaharkituta dagoela, gure araua dela moldatu behar dena. Orain arte argudiatzen zuten arkitektoaren interpretazio okerra zela. Baina badirudi interpretazioa egokia dela. Kontua da guk lekua egin beharko diogula gure hirigintza antolamenduko plan orokorrean Eusko Jaurlaritzak duela bi urte onartutako lege horri. Lana daukagu hirigintza plan orokorrean aldaketa puntuala sartuz eta ondoren ordenantza garatuz, edo hirigintza plan orokorra bere osotasunean landu eta orduan txertatuz. Zalantzarik gabe bigarrena askoz luzeagoa izango litzateke eta ez da egungo eztabaidan gauden errealitateari erantzun bat emateko modua, baino ni prest nago. Uste dut alderdi guztien artean landu beharreko gaia dela. Gure herriko errealitatean eztabaidagaia dela. Dagokion batzordean

El procedimiento es el siguiente, la ley les da cabida: el interesado lo solicita y el Gobierno Vasco informa al ayuntamiento. El ayuntamiento debe facilitar información de si existen o no contradicciones según su normativa. A partir de ahí se le respondió al Gobierno Vasco, y la lectura era que no había espacio para ese uso.

Anunciaron que se reunirían con todos los grupos políticos y así lo hicieron. En primer lugar lo hicieron con alcaldía. La situación es la misma, no ha cambiado nada. Dicen que en este tiempo han sufrido daños. Algunos de estos interesados se han reunido, han contactado con nosotros y han llevado sus quejas a otras instancias. De ahí que la semana pasada el ayuntamiento ha recibido un informe de la Autoridad Vasca de la Competencia dando su punto de vista, en el que nos muestra que surge alguna situación contraria a la la competencia, y nos indica que nuestro plan urbanístico está obsoleto y que lo que hay que adaptar es nuestra norma. Hasta ahora argumentaban que era una interpretación errónea o bastante sesgada del arquitecto. Sin embargo, parece que la interpretación que hacemos es correcta, si bien tendremos que dar cabida en nuestro plan general de acondicionamiento urbanístico a esta ley aprobada por el Gobierno Vasco hace dos años. Tenemos trabajo en la introducción de una modificación puntual en el plan general de urbanismo y en el desarrollo de una ordenanza; también se podría elaborar íntegramente el plan general de urbanismo y después introducirlo. Sin duda la segunda sería mucho más larga y no es la forma de dar una respuesta a la realidad que estamos debatiendo actualmente, pero yo estoy dispuesto. Creo que es un tema a tratar



DEBAKO UDALA

2020SPLE0013

eztabaida dezakegu eta posturak ikusi jakiteko nola egin aurre udal bezala daukagun errealitate juridiko-administratiboari gai honetan.

entre todas las partes; es un tema de debate en la realidad de nuestro pueblo. Podemos tratarlo en la comisión correspondiente y ver las distintas posturas para así saber cómo afrontar como ayuntamiento su realidad jurídico-administrativa.

Horrenbestez, 19:39etan amaitzen da Osoko Bilkura.

Sin más temas que tratar finaliza el Pleno a las 19:39 horas.

Jorge González Endemaño
Idazkaria



Gilen Garcia Boyra
Alkatea





2020SPLE0013

I. Eranskina / Anexo I

EUSKO JAURLARITZARI UDALENTZAKO EZ OHIKO FUNTSA BEREZI GEHIGARRIA ESKATZEKO MOZIOA

COVID19aren pandemiak sortutako krisiak gogor eragin du udalen egunerokotasunean, eta batez ere, udalek 2020rako eginiko aurreikuspenetan. Udalek beraien aurreikuspenak alde batera utzi eta beste lehentasun eta beharrezan batzuei egin behar izan diete aurre: herritarren osasun segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea, garbitasunean zerbitzu gehigarriak ezartzea, gizarte politiken arloan sortutako beharrezan berriei erantzutea, herrietako komertzio eta zerbitzuei laguntzea, ... Alarma egoeraren ondorioz udal zerbitzu asko bertan behera uzteak ere galera ekonomikoak eragin ditu udaletan.

Inbertsioak berrantolatzeaz gain, udalek diru sarreretan ere aldaketak jasango dituzte: batetik, tasa eta prezio publikoen bitartez lortzea aurreikusten zituzten sarrerak murriztuko dira; eta bestetik, foru finantza funtsaren bidez jaso beharko luketen diru kopurua ere asko murriztuko da.

COVID19aren krisiak behar berriak sortu ditu, eta erakunde publikoak horiei erantzutera behartuta daude. Udalak herritarrengandik gertuen dauden erakundeak izanik, momentu honetan beraien gaitasun ekonomikoa bermatzea oso garrantzitsua da.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak udalentsako ez-ohiko funtsa berezia sortzea dagokio gutxienez ondorengo udal premiei erantzuteko:

1. Udal zerbitzuetan izaniko galerei aurre egiteko.
2. Udalek zerbitzuak eta langile postuak telelanera egokitzeko gastuei aurre egiteko.
3. Herritarren larrialdi egoerei aurre egiteko
4. Arrakala informatikoa, haurren elikadura zein udal eskumenekoak ez diren beste gai batzuetan udalek egindako inbertsioengatik sortutako gastuak ordaintzeko
5. Hezkuntza eta osasun arloan udalei sortuko zaizkien beharrezan berriei aurre egiteko (adibidez eraikinak egokitzea eta garbitasun neurrien zorrozteak dakartzan kostu gehigarriak)

Bestetik, Europar Batasunak ere funtsa bereziak iragarri ditu datozen urteetan izango ditugun erronkei aurre egiteko eta COVID19aren izurriteak areagotutako krisi ekonomiko eta sozialaren ondorioak berreraikitzeko. Erronka horiei tokikotasunetik ere egin beharko zaie aurre, eta horretarako ezinbestekoa da udaletara funtsa horiek heltzea eta udalek (aniztasun osoa kontuan izanik dagokion ordezkaritzaren bidez) funtsa horien lanketan zuzenean parte hartzea, Nafarroako Gobernuak ahalbideratu duen bezala.

Debako udalbatzak, beraz, ondokoa adosten du:



2020SPLE0013

1. EUSKO JAURLARITZARI EAeko udalentsat ez -ohiko diru funtsa berezi bat sortzea eskatzen dio, udalek COVID19aren krisiaren ondorioz jasan behar dituzten gastu hauei aurre egiteko:

1. Udal zerbitzuetan izaniko galerei aurre egiteko.
2. Udalek zerbitzuak eta langile postuak telelanera egokitzekeo gastuei aurre egiteko.
3. Herritarren larrialdi egoerei aurre egiteko.
4. Arrakala informatikoa, haurren elikadura zein udal eskumenekoak ez diren beste gai batzuetan udalek egindako inbertsioengatik sortutako gastuak ordaintzeko.
5. Hezkuntza eta osasun arloan udalei sortuko zaizkien beharrian berriei aurre egiteko (adibidez eraikinak egokitzea eta garbitasun neurrien zorrozteak dakartzan kostu gehigarriak).

2. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu, Europatik datozen funtsen %30 udaletara bideratua izan dadin bermatu dezala.

3. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu, Europatik datozen funtsen banaketa zein lanketa garatuko den guneetan EAeko Udalen aniztasun osoa ordezkatua izango den ordezkaritza bidez parte hartze zuzena bermatu dezala.

4. Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko zaio.

Deban, 2020ko abenduaren 17an.

